

Ekitaldi ugari, Liburuaren Nazioarteko Egunean

Apirilaren 23an Nazioarteko Eguna ospatzen da eta euskal liburutegi eta herri ezberdinetan ekimen ugari antolatu dituzte. Horietako batzuk bildu nahi izan ditugu hemen:

Donostiako udalak antolatu dituen ekimen ezberdinen ardatz nagusietako bat Charles Dickens idazlea (1812-1870) izango da. Ohiko liburu azoka antolatu dute Gipuzkoa plazan eta 2011an zehar liburutegien sare osoko mailegu zerbitzuetan liburu gehien hartu dituzten 20 irakurle sarituko ditu Donostia Kulturak.

Bilbon ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte hiriko liburutegi ezberdinetan. Goizean, Berasategi kalean jarri duten karpan, Ángel Ortiz Alfau omenduko dute.

Aurkezpenei dagokionez, Elhuyarrek 'Hodeietan' iburua aurkeztuko du Donostiako Koldo Mitxelena. Narrazio zientifikoko obra da eta 12-16 urteko gazteei zuzenduta dago. Erein argitaletxeak Fito Rodriguezen 'Txillardegia' aurkeztuko du Donostiako Liburutegi Nagusiko sotoan egingo duten ekitaldian.

Alhóndiga Bilbaok irakurleei gehien hunkitu dizkieten testuak partekatzeke deialdia egin du 'Irakurleihoak' proiektuan. Doako bideo-konferentzia erabiliz atariko pantaila handian mundu osoko irakurleek gomendatutako testuak erakutsiko dituzte.

Tolosako liburutegiak antolatu dituen ekimenen artean herritarren artean Bookcrossinga bultzatzeko antolatu duena aipatu nahi dugu. Ekimen honekin irakurleek herriko gune publikoetan liburu bat utzi ahal izango dute beste batek hartu eta irakur dezan. Nazioartean oso edatuta dagoen ekintza da hau eta liburuak partekatzea du helburu.

Abian da Topaguneak antolatzen duen 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' kanpainaren seigarren edizioa. Parte hartuko duten liburutegi bakoitzean bi zozketa egingo dira, maiatzean eta ekainean parte hartuko duten irakurleen artean. Ekimen hau 15 herritan egongo da martxan eta tokiko elkarteek antolatuko dituzten egitasmo ezberdinek indartuta egongo da.

'XX. mendeko koaderno eta testuliburuak' erakusketa ikusi ahal izango da maiatzaren 13a bitartean. Hezkuntzaren ibilbide historikoa erakutsiko duen ekimen hau Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Bilera Gelan (Sarriena auzoa z/g, Leioa) jarri dute.

Diferentes actividades para celebrar el Día del Libro

El 23 de abril se celebra el Día Internacional del Libro. Por ese motivo diferentes bibliotecas han organizado diversos actos. Hemos querido recopilar y recomendarte algunas de esas actividades: El escritor Charles Dickens (1812-1870) es uno de los ejes principales de las actividades que ha organizado Donostia Kultura. Además, premiará a los 20 usuarios que más prestamos han realizado en 2011 en la red de bibliotecas de San Sebastián. Las diferentes bibliotecas municipales de Bilbao celebrarán diversas actividades durante el día. Por la mañana, en la carpa colocada en la calle Berastegi se realizará un homenaje al escritor Ángel Ortiz Alfau. El Koldo Mitxelena albergará la presentación de 'Hodeietan'. Elhuyar publica este libro de narración científica destinada a jóvenes de entre 12 y 16 años. Fito Rodríguez presentará en la Biblioteca Central de Donostia su nuevo trabajo, 'Txillardegi', publicado por la editorial Erein. Alhóndiga Bilbao presenta 'Irakurlehioak'. Mediante una vídeo-conferencia gratuita la pantalla gigante del Atrio se convierte en un espacio de comunicación donde lectores de todo el mundo compartirán, en su lengua materna, los textos que les han emocionado. Entre las actividades que ha organizado la biblioteca de Tolosa se encuentra el Bookcrossing. Esta iniciativa invita a los lectores a dejar en diferentes puntos de la localidad sus libros favoritos para que otros lectores puedan recogerlos. Este proyecto pretende compartir la lectura entre los ciudadanos. Topagunea pone en marcha la sexta edición de 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu', que pretende impulsar y compartir la lectura.

Entre las 15 bibliotecas que participarán en la iniciativa se realizarán dos sorteos. Además, los municipios participantes organizarán actos paralelos para completar la programación. La Sala de Juntas de la E.U de Magisterio de Bilbao (Barrio Sarriena s/n Leioa) acoge la exposición 'XX. mendeko koaderno eta testuliburuak'. Mediante esta muestra se pretende realizar un recorrido por la historia de la educación.